

**HIZKUNTZA ETA KULTURA POLITIKAK:
NON EGITEN DUTE BAT, NON OZTOPATZEN DUTE ELKAR?**
Iratxe Retolaza (Emagin, UEU)

Iruñea, 2022ko urriak 22
Eusko Ikaskuntza

**HIZKUNTZA ETA KULTURA POLITIKAK:
ABIAPUNTUKO GOGOETA ZENBAIT**

Ezaguna denez, hizkuntza politikak eta kultura politikak diseinatzeko, egituratzeko eta bermatzeko gune iraunkorrik ez da sortu orain arte, ez Nafarroan, ez Euskal Herriko beste lurralde batzuetan ere. Are gehiago, hizkuntza politikak eta kultura politikak zutabe eta adar berezietan garatu izan dira, bai administrazio publikoen estrategietan zein jardunean, bai herrigintzako erakundeen eta elkarteen estrategietan zein jardunean. Hizkuntza politikak garatu izan dira hizkuntzaren biziberritzean kultura ekosistemak eragingo ez bailuen, eta kultura politikak egin izan dira kultura praktikan zein harreran hizkuntzaren egoera diglosikoak zein subordinatuak eragingo ez bailuen. Azken urteotan, pixkanaka euskalgintzaren eta kulturgintzaren arloko eragileak hurbiltzen hasi dira, eta bi eremu horiek elkarrekin pentsatzeko ariketa txiki batzuk egiten hasi dira (adibidez, Kontseiluak sustaturiko *Batuz aldatuz* akordioa, edo EAEko Hezkuntza Lege berria dela eta sorturiko sinergiak).

Ez dugu ahaztu behar, hizkuntza batek indar soziala, espazio soziala eta balioespen soziala har dezan, berebiziko garrantzia du hizkuntza horren kultura ekosistemak indar soziala, espazio soziala eta balioespen soziala hartzeak, azken finean, kultura praktikak eta kultura komunitatea baitira hiztunak trinkotzeko funtsezko gune sozialak; are gehiago, hizkuntza gaitasunean, adierazkortasunean eta atxikimenduan. Horren ondorioz, euskararen biziberritzeaz ari garenean, funtsezkoa da kultura hezkuntzaren eta kultura jabetzearen inguruan hitz egitea.

Izan ere, euskarazko kultura biziberritzeak nortasun pertsonalean zein kolektiboan eragin onuragarria du:

— **Kultura, munduan lekua hartzeko/egiteko bideetariko bat (errotzea):** kultur esperientziek eta kultur imajinarioek munduan leku bat egiten laguntzen digute:

barne-mundua elikatzen dute, zentzuaren eraikuntzan laguntzen digute (gure buruaren eraikuntzan laguntzen digute, baita mundua ulertzen ere), trukea sustatzen dute, jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen gaituzte, eta abar.

— **Kultura testuek eta jarduera estetikoek irudimena sustatzen dute.**

Irudimenak errealitate alternatiboak sortzeko baliabideak eskaintzen dizkio norbanakoari, baina, baita komunitateari ere.

— **Kultura testuek eta esperientzia estetikoek eguneroko ohiturak arrozteko aukera ematen dute:** arrozte horiek galdera berriak sorrarazten dituzte, eta testuinguruez edo egoerez kontzientzia-hartzeko bideak irekitzen dituzte. Arrozte horiek bide / pentsamendu / irudi berrietan arakatzeko grina sorraraz dezakete.

— **Kultura testuek eta esperientzia estetikoek norberak bizi izan dituen esperientziak birpentsatzeko eta birkokatzeko leihoak zabaltzen dituzte:** geure bizi esperientziak beste ikuspegi batzuetatik birpentsatzeko aukera ematen digute, eta beste esperientzia batzuekin harremanetan jartzeko aukera eman ere.

— **Kultura testuetan eta esperientzia estetikoetan trebatzeak aukera ematen du nork bere ahotsa gorpuzteko, nork bere ikuspuntutik izendatzeko mundua.** Horretarako, irakaskuntza-dinamiketan trukeko espazio aproposak sortu behar dira. Hau da, sormen-lanek sorturiko emozioak, sentsazioak, usteak edo iritziak trukatzeko espazio egokiak eraiki behar dira (komunikazio dialogikoa helburu dutenak, pentsamendu dialogikoa sustatze aldera). Izan ere, espazio horiek nork bere ikuspuntuak garatzen joateko baliagarri izateaz gain, kideen arteko komunikazioa eta harremana hobetzeko bide dira.

— **Kultura sorkuntzak hedatzeko/gizarteratzeko ekintzek** diskurtso, ohitura eta harreman-eredu zenbait sortzen dituzte. Alegia, gizarte-eredu bat eraikitzen edo sustatzen dute.

Kultura hezkuntzaren onura horiek kontuan hartuta, izan bada beste onura bat funtsezkoa dena euskararen biziberritzean, eta gizarte-kohesioari begira: euskal kulturaren transmisioa edo gizarteratzea komunitatea eraikitzeke eta erreferentzia-marko partekatuak eraikitzeke jardun ezinbestekoa da. Euskal kulturaren transmisio edo gizarteratze horrek, honako helburu nagusi hauek izan beharko lituzke ardatz:

- ☐ Euskal komunitatea trinkotzea, euskara eta euskal kultura biziberritzeke.

- ☐ Euskal herritarrek Euskal Herrian errotzea, bertako lurraldearekiko eta kulturarekiko atxikimendua areagotzeko.
- ☐ Euskal herritarrengan euskal ondareak eta ekosistemak zaintzeko eta hedatzeko jarrerak sustatzea.
- ☐ Euskal pentsamenduez, mundu-ikuskereez eta sinboloek jabetzea, komunitatearen ibilbideak zein genealogiak ezagutzeko.
- ☐ Euskaraz sormena, irudimena eta adierazkortasuna lantzea.

Jakina, euskal kulturaren transmisio-jardunak Nafarroako lurraldearen testuinguruan berezitasun zehatz batzuk hartzen ditu, eta kulturaren gizarteratze hori egituratzean une oro tokiko gizarte-egoerari erreparatzea ezinbestekoa da, tokikotasunetik sortzeko eraldaketa-prozesu eraginkorrak eta ez-baztertzailak. Hona hemen berezitasun horietariko batzuk: Foru Legearen arabeko zonifikazioaren ondorioz, ez da euskara hizkuntza koofiziala Nafarroako lurralde osoan zehar; hamarkadatan zehar eskuin espainolak kudeatu izan du Nafarroako gobernua, 2015. urtean Gero Bairen esku geratu zen gobernua (EHBildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerraren botoen babesarekin); euskararen eta euskal kulturaren kontrako hamarkadako politika publikoei aurre egiteko tokian tokiko herri-mugimendu eta kultura-mugimendu indartsuak sortu dira, besteak beste, Errigora, (H)Ilbeltza, Iruinkokoa, Laba; azken hamarkadatan migrazioak gora egin du, eta kultura aniztasunak zein hizkuntza aniztasunak gora egin du...

Testuinguru horretan garaturiko hizkuntza politikak eta kultura politikak izango ditut gogoetagai txosten honetan, eta horretarako, hizkuntza politikak zein kultura politikak diseinatzean eta aztertzean eragiten duten hiru aldagai izango ditut kontuan:

- ❖ **Erabakigunea(k).** Hizkuntza politikak eta kultura politikak diseinatzeko ardura publikoa erakunde jakin batzuek izaten dituzte. Nafarroako Gobernuaren kasuan, hizkuntza politikez eta kultura politikez dihardugula, honako hau adierazi behar da: alde batetik, Kultura eta kirola departamentua dugu, beste alde batetik, Hezkuntza departamentua, eta azkenik, Euskarabidea erakundea, Herritarrekiko harremanetako departamentuaren barruan kokatzen dena. Beraz, hizkuntza

politikak eta kultura politikak ez dira elkarlanean egituratu ohi, sail berezietan eta erakunde berezietan eraikitzen dira estrategiak eta politikak, eta gainera, ez dago gune edo erakunde horiek elkarrekin jarduteko mahairik edo gune iraunkorrik. Salbuespenetariko bat hezkuntza dugu, eremu horretan Hezkuntza departamentuak aukera duelako bai hizkuntza politikak, bai kultura politikak zehazteko, baina euskararen zonifikazioak bete-betean eragiten du hezkuntza-erabakietan, eta beraz, zailtzen eta oztopatzen du elkarlanean egituratzea bi politika-jardun horiek (hizkuntza eta kultura), hain zuzen, berez bateragarri izan beharko liratekeen eremu batean.

- ❖ **Norabidea(k). Plan estrategikoen diseinua.** Erabakiguneek politikak diseinatzeko planak egin ohi dituzte: hizkuntza planak edota kultura planak. Plan estrategiko guztietan zuzenean edo zeharka hizkuntzaren eta kulturaren arteko ikuspegi bat zedarritzen da, eta horregatik, bi plan horien arteko gurutzaketak aztertzea garrantzitsua da, plan bakoitzak bestean nola eragiten duen ikusteko, plan bakoitzak besteari oztopoak jartzen dizkion aztertzeko. Edo kontrara, bi planek elkar elika dezaketen, eta zertan elika dezaketen elkar ikusteko.
- ❖ **Gauzatzea(k). Bitartekoen eta baliabideen eskaintza.** Erabakiguneek diseinatzeko dituzte norabidea edo estrategiak, baina, jakina, horietan urratsak egiteko, horiek gauzatu ahal izateko, zer bitarteko eta baliabide eskaintzen diren aztertzea funtsezkoa da. Ba al dagoen egitura iraunkorrik planetan diseinaturikoak bermatu ahal izateko, ba al dagoen hitzarmen bereziturik planetako oinarritzko urratsak egingo direla bermatzeko, ba al dagoen diru-laguntza edo diru-aurrekontu nahikorik diseinaturiko urratsak egin ahal izateko.

Nafarroako hizkuntza politiken eta kultura politiken inguruko azterketa txiki eta azkar bat egiteko, 2015. urtetik aurrera diseinatu diren planen eta curriculumaren azterketa orokor bat egingo dut, plan eta hezkuntza-curriculum horietan hizkuntza eta kultura ikuspegiak non gurutzatzen diren, eta non elkar oztopatzen duten identifikatzen joateko, etorkizunean findu behar diren ikuspegiak, diskurtsoak eta praktikak izendatzen joateko.



NORABIDEA(K):

HIZKUNTZA PLANA

Hizkuntza plana aztertzeko, lehenik, Euskararen I. Plan Estrategikotik interesgarriak eta baliagarriak diren ekarpenak aipatuko ditut, eta ondoren, ekarpen horien indargune eta ahulguneak adieraziko ditut.



EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA (2016 - 2019)

HELBURU NAGUSIA: Euskararen erabilera igotzea, hiztunek gizarte arlo guztietan erabil dezatela erraztuz eta euskararen erabilera errazagoa eginez.

1. Euskarazko jardueren eskaintza handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera aktibatze eta indartzeko.

ARLOAK

EKINTZAK

Eskaintza eta gizarte erabilerarako aukerak handitzea

Foru Administrazioak berak kulturaren eta kirolaren esparruan eskaintzen dituen jardueren eskaintza indartzea eta handitzea, aski izan dadin, Nafarroako Gobernuako departamentuek garatzen dituzten programetan (Gazteriaren Planean, Kultura Planean, kirol federazioekiko harremanetan eta abarretan) hizkuntza honen erabilera sustatzeko irizpideak sartuz.

Tokiko entitateek kulturaren, kirolaren eta aisiaren arloetan antolatzen dituzten euskarazko jarduerak laguntzea eta bultzatzea.

INDARGUNEA

AHULGUNEA

Kultura planaren programetan hizkuntza irizpideak txertatzeko asmoa.

Kultura planean euskal kulturaren gizarteratzea eta sustapena zehar-lerro ez bilakatzea.

2. Eskolaz kanpoko eta aisialdi antolatuko arloaren eraginkortasuna handitzea euskaraz eskolaturiko haur eta nerabeen artean eta euskarazko eskolatzetik datozen gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko.

ARLOAK

EKINTZAK

Gizarte eragileak kontzientziazatzea

Arloko eragileekin (klub eta kirol federazioekin, aisia eta kultura elkarteekin eta halakoekin) estrategiak lantzea eta garatzea, egiten dituzten jardueretan euskararen erabilera sustatzeko orduan duten eraginkortasuna hobetzeko.

Hizkuntza irizpideak

Baldintza agirietan neurriak sartzeko bermatzeko euskarak aski presentzia eta erabilera izanen duela aisiaren, kulturaren eta kirolaren arloan diruz lagunduriko jardueretan.

Diru publikoz laguntzen diren programetako begirale, hezitzaile, entrenatzaile, dinamizatzaile eta halakoen kontratazioetan hizkuntza irizpideak txertatzea.



INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Kulturaren arloan diruz lagundutako jardueretan aski presentzia euskarak.	Ez du adierazten euskal kulturak presentzia izatea diruz lagundutako jardueretan.

6. Euskarazko sormenezko kultura produktu eta jardueren eskaintza zabaltzea euskararen bidez hiztunak bizi duen esperientzia estetiko eta zirrarakoa euskararen erabileraren sendogarria izan dadin.

ARLOAK	EKINTZAK
Kultura sorkuntza	Euskarazko sorkuntza bultzatzeko ekimenak abian jartzea (diru-laguntzak, sariak, lehiaketak, etab.).

Kultura kontsumoa	Euskarazko kultura ekoizpenak ikusgarri egiteko eta haien kontsumoa sustatzeko jarduketak garatzea.
	Nafarroa osoko herritarrek euskarazko kultura eskaintza izan dezaketela ziurtatzeko neurriak hartzea.
	Euskarazko kultura produktuak (musika, zinema, antzerkia, literatura, etab.) adin tarte guztietako herritarrengana iristen direla bermatzea.



INDARGUNEA	AHULGUNEA
Kultur sorkuntza eta kontsumoa bermatzeko neurriak hartzea.	Kultura sailaren esku, neurri handi batean.

8. Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea, herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten.

ARLOAK

EKINTZAK

Ondare materiagabearen digitalizazioa eta hedapena

Nafarroako euskarazko kultura ondare materiagabearen digitalizazioa eta herritarren eskura uztea bultzatzea.

Mediatekako funtsen zabaltze didaktikorako proiektuak gauzatzea: euskal hizkeren soinudun grabazioak eta ikus-entzunezko grabazioak eta Nafarroako euskalkietako testu idatziak.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Euskal kultur ondarearen zaintza eta zabalkundea.	Erakusleihu bateratu eta erreferentendun bat sortzeko zailtasunak.

HELBURU NAGUSIA: Euskarak hiztunak irabaztea, haurrak nahiz helduak euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua Nafarroa osoan eta baldintzarik hoberenetan bermatzen.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

1. Orokortzea herritar orok euskaraz eskolatzeko duen aukera, hezkuntza inklusiborako elementu den aldetik. Horrela, beren seme-alabek euskaraz ikastea nahi duten familiek kalitatez izanen dute bermatua hautu hori Haur Hezkuntzatik hasi eta irakaskuntzaren goi mailaraino.

ARLOAK

EKINTZAK

Irakasleen prestakuntza

Prestakuntza eskaintza areagotzea, irakasleen euskarazko gaitasun komunikatiboa hobetzeko, kontuan izanik euskararen tokiko aldaeran prestakuntza (halakorik badenean) eta ikasgelan eta ikastetxean izan behar duen erabilera.

Euskara irakasleek hizkuntzen didaktikaren arloan duten etengabeko prestakuntza sendotzea, irakasleen komunikazio gaitasunak hobetzeko eraginkorrak izan daitezkeen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen unibertsitate masterrean Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle espezialitatea eskaintzeko aukera aztertzea.

Bigarren Hezkuntzako Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek Euskal Filologia, Euskal Ikasketak edo euskara barne duen Itzulpen gintza edo Interpretazio titulazioa izan dezatela bermatzea.

Aztertzea euskararen C2 maila egiaztatzen duen ziurtagiria Nafarroan eskaintzeko aukera.



INDARGUNEA	AHULGUNEA
Euskara eta Literatura irakatsiko duten irakasleen berariazko formazioa.	Unibertsitate-egituren esku, neurri handi batean.

GAUZATZEA(K):

DIRU-LAGUNTZAK



Irabazi-asmorik gabeko gizarte entitateentzako 2022ko laguntzen deialdia

Nafarroan euskara sustatzeko programa eta jarduerak

Irabazi-asmorik gabeko gizarte entitateentzako 2022ko laguntzen deialdia

Laugarren oinarria.–Diruz lagungarriak diren jarduerak.

4.1. Euskararen presentzia eta erabilera areagotzen laguntzen duten jarduerak eta programei emanen zaie lehentasuna deialdi honetan, **gehienbat nerabeei eta gazteei zuzendutakoei.**

–Efemerideak edo bestelako ekimenak ospatzea, euskararekin, kulturarekin eta tradizioekin, hizkuntzaren historiarekin edo euskararen garapenean garrantzia izan duten pertsonaiekin lotuta.

f) Euskararen proiektzio sozialerako edo sorkuntzarako jarduerak, eremu edo eskualdeetako bizilagun elebidunen artean **euskararen presentzia areagotzen dutenak:** hitzaldiak, mahai-inguruak, antzezlanak, zinema edo bideo proiektzioak eta aldizkariak ez diren argitalpen txikiak.

g) **Bertsolarien emanaldiak** (jendaurrean bat-bateko bertsoak kantatzea) eta bertsolaritzan trebatzeko jarduerak, jendeari oro har zuzendutakoak, betiere 8 ikasle baino gehiagoko taldeak badira, eta ikastetxeetako guraso elkarteek antolatutako jarduerak ez badira.

(...)

4.2. Hurrengoak deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- a) **Nafarroako Gobernuaren beste departamentu edo unitate batzuei dagozkien** edo haien eskumenekoak diren jarduerak edo ekintzak, bai eta diseinuan, publizitatean edo lotutako euskarrietako edozeinetan euskararen presentziarik ez dutenak ere.
- b) Eskolaz kanpoko jarduerak, guraso elkarteek antolatutako aisialdiko jarduerak, eta ikastetxeetan egiten direnak, **Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak** direlako.
- c) Bestelako jarduerak, hala nola kanpalekuak, txangoak, otorduak, **dantzaldiak, artisautza azokak, ikuskizunak**, kirol lehiak etab., deialdiaren helburuekin lotura zuzenik ez dutenak eta **Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eskumenekoak** direnak.
- d) **Musika kontzertuak.**

Diru-laguntzak diseinatzean, aukera batzuk ematen dira, eta beste batzuk mugatzen dira. Diru-laguntza baten deialdia ekarri dugu hona, adibide modura, ikusteko zer muga mota jarri ohi diren. Hemen gogoeta labur zenbait:

- (1) Alde batetik, gero eta nabarmenagoa da euskararen erabilera sustatzeko argitaratzen diren diru-laguntza askotan nerabe eta gazteengan fokua jartzea. Jakina, garrantzitsua da nerabe eta gazteei baliabideak ematea, euskaraz jardun nahi duten moduan espazioak eta baliabideak emateko, baina ezin dugu ardura nerabe eta gazteengan bakarrik jarri. Batzuetan euskararen etorkizuna nerabe eta gazte hauen esku dagoela dirudi, baina, alde batetik, haiengan ez dagokien ardura bat jartzea da, eta beste alde batetik, nerabe eta gazteengan eragin handia du helduek egiten dutena. Helduen euskalduntzean eta kulturazaleztzean eragingo bagenu, zuzen-zuzenean eragingo genuke nerabe eta gazteen praktiketan, eta gainera, gaur egun ikuspegi demografiko batetik ere helduengan eragiteak garrantzia berezia du gero eta komunitate handiagoa izango garelako, eta beraz, euskalduntzean eta kulturazaleztzean eragiteko pieza funtsezkoa.
- (2) Beste alde batetik, diru-laguntzan kultura praktika batzuei euskalduntzean duten eragina aitortzen zaie (adibidez, bertsolaritzari), baina beste batzuei ez zaie aitortzen kultura praktika modura euskararen biziberritzean egiten duten ekarpena (ikus-entzunezkoak, musika...). Modu horretara, euskararen imajinarioa txikitzen ari gara, ez baitugu euskara lotzen bestelako imajinario horiekin ere.



- (3) Azkenik, nabarmena da departamentuen arteko elkarlan eskasa diru-laguntzak formulatzeko moduan, oso espazio higiezin modura irudikatzen direlako departamentuak, eta horrek babesgabe uzten dituelako hainbat eragin-eremu, departamentuen arteko mugetan kokatzen direnak (mugako espazio asko egon badaudelako, euskalduntzean eta kulturazaleztzean eragiten dutenak).

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Kultur jarduera, praktika eta ekimen batzuk kontuan hartzen ditu (bertsolaritza, solasaldiak...).	Ez du aukerarik kasik Hezkuntza eta Kultura Departamentuekin eskumenei loturiko eremuetan eragiteko.
Beste erakunde batzuekin hitzarmenak egitea hobesten da (Hiruko Ituna, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Dindaia, Bertsozale elkarte, Durangoko Azoka...).	Hitzarmen horiek hizkuntzaren erabilera sustatzea ohi dute helburu nagusi (adibidez, Hiruko Ituna), eta batez ere beste Departamentuen eskumenak izan ohi dituzte muga. Adibidez: Hiruko Itunak ez du hezkuntza arautuko proposamenik egiten.

NORABIDEA(K):

KULTURA PLANA

Hizkuntza planari begiratu azkar bat egin ondoren, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoari erreparatuko diogu.

Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa 2017-2023

2.2. Politikak eta erakundeen/sektoreen arteko koordinazioa

- Kultura Hezkuntzaren mailan kokatzen duten edo gizarte hobeagoa sortzen laguntzen duen zerbitzu publiko gisa hartzen duen erakunde-politkarik ez dago; herritarrei zuzendutako politikak, haien irisgarritasuna eta prestakuntza, partaidetza eta irizpide artistikoaren hazkundera errazten dutenik ez dago.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Kultura hezkuntza balioestea.	Kultura hezkuntzaren eremuan euskal kulturaren berezitasuna eta zaugarritasuna kontuan ez hartzea.

2.6. Prestakuntza eta ikerkuntza

- Arte eta kultura eta arlo artistiko askotan, ez da ikasketarik eskaintzen Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Eta kasu batzuetan kostu ekonomiko altuko masterrak daude soilik. Honek talentuen ihesa laguntzen du.
- Kultura sektoreekin lotutako ikerkuntza eta hezkuntza eremuetan ez daude eredurik ez eta ildorik ere.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Kultur formazioa eta kultur ikerketa balioestea.	Kultur formazioaren eta kultur ikerketaren eremuan euskal kulturak modu berezitan dituen zailtasunak ez kontuan hartzea.

2.8. Loturak/Lankidetzak-sareak/Hibridazioa

- Kulturaren arloak hezkuntzarekin garatu beharko luke lotura garrantzitsuenetakoa, araututako hezkuntzan hezkuntza sisteman oraindik sartu ez diren eta eskolatik kanpo soilik aurki daitezkeen diziplina artistikoen ezagutzak gehituz, eta egun araututako hezkuntzan presentzia dutenak garatuz, eskaintza goi graduetara luzatuz. Unibertsitatean ere zenbait arlotan urritasunak sumatzen dira (arte plastikoak eta ikusizko arteak, ...).



INDARGUNEA	AHULGUNEA
Hezkuntza arautuan kultur adierazpideak txertatzeko premia adieraztea.	Hezkuntza arautuan euskarazko kultur adierazpideen zailtasun bikoitza ez azpimarratzea.

Kontuan hartu beharko liratekeen hainbat printzipio:

- Kulturaren balio publikoaren eta kulturara heltzeko eskubide unibertsalaren defentsa, berdintasunezko gizarte parte-hartzailea eraikitzeko funtsezko oinarri gisa.
- Gure kultura aniztasuna, gure ondare nagusia. Nafarroak nortasun sendoa du, bi tradizio esanguratsu dituela: euskal tradizioa eta erromantzea. Haren bi hizkuntzek (euskara eta gaztelania), haren nortasun historiko nabariak eta haren herritartasun berriaren nortasun anitzek Nafarroa osatzen eta aberasten dute, aniztasuneko eta kulturartekotasuneko lurralde gisa.


Hainbat idei sendo:

- Euskara: beharrezkoa da euskara eta kultura adierazpenak laguntzea jasan duen abandonuak sortarazitako hutsunea gainditu ahal izateko. Euskararekin lotutako sorkuntza artistiko berritzailea bultzatzea, eta baita hizkuntza horretan egindako ikerkuntza eta kritika lana ere.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Euskararen ondarea aitortzea, eta babesgabetasun historikoa aitortzea.	Kultura plan osoan zehar-lerro ez izatea, babesgabetasun horri aurre egiteko.

Esate baterako, [Atlas kulturala](#) osatzen ari dira, baina atlas hori diseinatzean euskal kulturaren ekarpenak edo ikuspegiak ikusgarriago egiteko irizpiderik ez da erabili.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INFORMAZIOA, EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA SORMENA





INDARGUNEA	AHULGUNEA
Euskararen erabilera estatistiketan ikusgarri egitea.	Euskararen erabileraren inguruko informazio kualitatiborik ez jasotzea.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: SENTSIBILIZAZIOA, PARTAIDETZA ETA HIRUGARREN SEKTOREA

Jarduketa-ildoak:

(Kode-E4.L3)

KULTURA ETA SORMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA BULTZATU ETA PUBLIKOAK ERAKARRI ETA FIDELIZATU.

Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Garapen intelektuala, ekonomikoa eta baita giza-garapenerako kulturak eta sormenak duten balioa eta garrantzia gizartean zabaltzea; kultura eta sormenaren publikoak erakarri eta garatzea, epe luzera horien garapena eta iraunkortasuna laguntzeko.

4. EKINTZA: Gai kulturaletan espezializatutako gida eta unitate didaktikoak (aniztasun kulturala, antzerkia, dantza, etab.), programak, eduki eta tresna pedagogikoen garapena bultzatzea, Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin, genero ikuspegia, euskararen erabilera, teknologia berrien erabilera, etab. txertatuz.
(Kode.E4.L3.A4)

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Kultura euskaraz lantzeko baliabide pedagogikoak lantzeko bitartekoak.	Euskal kultura zehar-lerro izan dadin baliabide pedagogikoak edo protokolo pedagogikoak ez diseinatzea.

NORABIDEA(K):

HEZKUNTZA CURRICULUM BERRIA

Hezkuntza curriculum berriak izan baditu euskal kultura langai bihurtzeko helduleku garrantzitsuak, baina, jakina, muga nagusi du euskararen zonifikazioa, hezkuntza-esparruan bete-betean eragiten duena.

Hezkuntza curriculumak etaparen helburuetan hauek ere aipatzen ditu, euskal kulturari leku egiteko helduleku zaizkigunak:

Etaparen helburuak

❖ **Tokiko kultur ondarearen balioespena.**

Oinarrizko hezkuntza.

j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta Nafarroako ondare artistikoa eta kulturala, geografia eta historia eta bertako hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

Batxilergoa

r) Nafarroako ondare natural, historiko, artistiko eta kulturala ezagutu, baloratu eta errespetatzea, eta orobat hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Tokiko kultur ondarearen balioespena.	Euskal kultura berariaz ez aipatzea.

Tokiko ondare hori zertan den ez definitzeak, gatazkak sor ditzake, jakin badakigulako Nafarroan tokiko ondarearen inguruan aritzean ikuspegi-gatazka hori egon badagoela, eta nafartasuna bera definitzeko askotariko posizioak egon badaudela, batzuk hurbilxeago egon daitezkeenak, eta beste batzuk kontrakarrean eraikitzen direnak.

❖ **Esparrukako antolaketa. Gizarte eta Hizkuntzak**

LOMLOE lege berriak esparrukako antolaketa proposatu du, jakintza-esparru batzuen artean elkarlanean aritzea proposatu du. Euskara eta Literatura ikasgaia modu honetara egituratzea proposatu du:

“Con este objetivo, se establece el currículo de este ámbito, el cual integra las materias de **Geografía e Historia, Lengua y Literatura Castellana** y, si la hubiere, **Lengua Cooficial y Literatura**, desarrollando elementos curriculares exclusivos de este ámbito, que garantizan al alumnado el logro del perfil de salida y sirven de marco para la labor docente del profesorado”.



Eremuen antolaketa hori proposamena baino ez da, baina oraindik proposamen hori birpentsatzeko ariketa kolektiborik ez da egin hezkuntza-esparrutik. Euskara eta Literatura ikasgaiak euskararen eta euskal kulturaren biziberritzean funtsezko ardura du, eta Gaztelania eta Literatura ikasgaiko irakaslearekin edo edukiarekin elkarlanean garatu behar bada, arriskuak etor daitezke, ikuspegiak bateratzeko zailtasunak egon daitezkeelako, baita edukiak bateratzekoak ere, eta gainera, euskarako irakasleak utziko diolako euskal erreferente izateari. Eremuka lan egitea aukera bat da, Euskara eta Literatura ikasgaiko arduradunak beste jakintza-esparru batzuetan ere eragin dezan, eta euskal kultura ere zehar-lerro bilaka dadin beste jakintza-esparru batzuetan, baina, hain zuzen ere, horretarako beharrezkoa da Gaztelania eta Literatura ikasgaitik deslotzea.

INDARGUNEA	AHULGUNEA
Eremuka lan egiteak komunikazio-gaitasuna eta kultur kontzientzia zehar-lerro izateko aukera.	Gaztelaniarekin batera kokatzeak euskara eta euskal kulturaren presentzia gutxitzeko bide.

❖ **Ikaskuntza-egoerak ardatz nagusi**

Hezkuntza curriculum berriak ikaskuntza-egoerak izango ditu ardatz, ezaugarri hauek definitzen dutena:

- ✓ Arazo, erronka edo egoera bat planteatzen dute, non eskatzen dena argi eta berariaz azaltzen den.
- ✓ Galdera edo arazo bati sormenez erantzutea dakarte.
- ✓ Interes publikoko gaiak jorratzen dituzte.
- Kultur praktikek edo kultur ekoizpenek zehar-lerro izateko aukera.




INDARGUNEA	AHULGUNEA
Tokikotasunak eta malgutasunak proiektuetan kultur praktikak zehar-lerro izateko aukera.	Irakasleen artean eta formazio-programetan euskal kultura zehar-lerro egiteko irizpideak edo baliabideak ez jarri izana.

Ikaskuntza-egoeren bitartez lanean aritzea aukera onak ematen ditu, proiektu horietan euskal kultura zehar-lerro gisa sartzeko, eta eskolaz kanpoko eremuekin hartu-emanak eraikitzea hobesten denez, aukerak zabaltzen ditu herri-dinamikekin loturak egiteko. Jakina, lotura eta zubi horiek egin ahal izateko irakasleei baliabideak eman behar zaizkie, zamatsuegi izan ez dadin aldaketa prozesua, eta materialak hutsetik sortu behar ez ditzaten.

❖ **Hautazko ikasgaiak:**

- ✓ “Nafarroako geografia eta historia” hautazko ikasgaia eskaintzen du curriculum berriak. Ikasgai horretan euskal kultura koka daiteke zehar-lerro gisa, baina, horretarako historiako irakasleekin lanketa bat egitea beharrezkoa litzateke, norabide horretan elkarlan bat abiatzeko.
- ✓ Ikastetxeak diseina ditzake oraindik ere hautazko ikasgaiak curriculum berrian, eta horrek aukera ematen du kulturaren inguruko hautazkoak eskaintzeko. Bide horretan eredugarria da EIBZk egituraturiko “Sormen digitala” (EIBZ) ikasgaia.



INDARGUNEA	AHULGUNEA
Hautazko ikasgaiek euskal kulturaren lantzeko aukera zabaltzen dute. (EIBZ, Sormen Digitala)	Kultur hezkuntza lantzeko egitura iraunkorrik ez, edota hizkuntzaren normalizazioari dagozkion egiturei diseinuetan parte hartzeko aukera gutxi eman.
Kultur hezkuntzaren inguruko kontzientzia (Bertsolariak ikastetxeetan, Musikariak ikastetxeetan, eta abar).	Kultur hezkuntza lantzeko egitura iraunkorrik ez.

HIZKUNTZA ETA KULTURA POLITIKAK:

ONDORIO ZENBAIT

Hizkuntza planaren, kultura planaren eta hezkuntza curriculum berriaren gogoeta labur batzuk egin ondoren, hizkuntza politikak eta kultura politikak diseinu eta estrategia integral baten bidean egituratzeko honako aukerak eta mugak ditugula ondorioztatu dugu, lehen azterketa azaleko hau egin ondoren:

❖ **Non egiten dute bat?**

- ✓ Tokiko kultur ondarearen zaintza.
- ✓ Esperientzia estetikoaren eta esperientzia kulturaren balioespena.
- ✓ Kultur hezkuntzaren balioespena.
- ✓ Euskarazko sormenaren babesgabetasunaren aitortza.

❖ **Non oztopatzen dute elkar?**

- ✓ Kultura planak eta hezkuntza curriculumak ez dute euskal kultura izendatzen (ezta definitzen ere).
- ✓ Tokiko ondarea aipatzean ez zaio euskarazko ondareari aipamen bereziturik egiten hezkuntza curriculumean.
- ✓ Tokiko ondarea aipatzean ez zaio euskararen lurraldeari erreferentziarik egiten.
- ✓ Kultura planak ez du berariaz euskal kultura sustatzeko neurririk aipatzen, eta Hizkuntza planak ez du hori egiteko eskumenik.

Bat egite horiek elikatu beharko genituzke, eta heldulekutzat hartu, eta oztopoetan arreta jarri beharko genuke garatu behar ditugun diskurtso, estrategia eta praktikak bide eraldatzaile batetik diseinatzeko.